

ganbaran

AGUSTIN ARRIETA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AGUSTIN ARRIETA

Ganbaran

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Tarteka amari, tarteka esku artean dauzkan aldizkariei begira. Orri-pasa. Tarteka zahar-etxeko tabernan dauden beste pertsona guztiei begira. Denbora pasa.

Duela aste batzuk bertan ateratako argazkiari erreparatu dio Mikelek. Amari eta tabernan zeuden guztiei hartu zien argazkia. Ez dago apenas berritasunik, gorputz bakoitza bere tokian dago, pieza guztiak argazkian agertzen dira gaurkoan tabernan dauden bezalaxe. Salbuespena da azkeneko egunetan pieza bat falta izan dela, baita gaurkoan ere; leku huts bat noiz beteko zain. Bakarren bat tabernatik betiko desagertzen denean, aldameneko aulkiak ere hutsik geratzen dira.

Sei hilabete pasa dira, ama zahar-etxera eramatea erabaki zuenetik. Ia-ia bakarrik erabaki zuen, Olatz lan kontuengatik atzerrian bizi baita. Telefonoz hitz egin zuten behin baino gehiagotan, baina azkenean Mikele bakarrik zegoen amarekin, bakarrik zegoen erabakitzeko, bakarrik zegoen ama zaintzeko. Olatz han, Mikele hemen. Mikelek xehetasunez azaldu zion ama zahar-etxera eraman behar zutela, egoera oso zaila zela. Olatzek hitz ezin gutxiagotan bere adostasuna adierazi zion urruntasunetik.

“Eraman? Ama, zahar-etxera eraman? Eraman behar?”, hitz eta galdera horiek presente daude Mikelerengan. “Olatzen buruan ere egongo dira?”

Olatz gaur iritsiko da, hilabete baterako. “Bazen garaia”, egin du bere artean Mikelek. Olatzena ihesa izan zen, amarengandik ihes egin zuen. Ezin zuen amaren aiurriarekin. “Ni etxetik joan nintzenetik, gogorra izan zen Olatzentzat gurasoekin bizitzea. Are gogorrago aita hil zenetik, orain dela bost urte. Olatz amarekin bakarrik, biak bakarrik familiako etxebizitzan”.

Olatzek ama bakarrik utzi zuen etxebizitza hartan. Nahiko ustekabea izan zen Mikelerentzat Olatzen ihesa. Olatzek ezin zuen gehiago, jasanezina gertatzen zitzaion egoera. “Zuk zer dakizu!” esaldia iltzaturik geratu zitzaion garunean. Hori esaten zion amak Olatzi eztabaidak berotzen zirenean, berdin zitzaion zertaz ari ziren, berdin zitzaion auzia zein zen, “zuk zer dakizu!” mespretxuzkoa ateratzen zen beraren ahotik elkarriketa amaierara iritsia zela adierazteko. Mikele halakoen lekuko izan zen, baina ustekabean harrapatu zuen Olatzen erantzunbideak.

Ihes egin zuen, urrutira: lan kontuak. Bi urte daramatza atzerrian, eta “ez da behin ere guregana etorri. Gaur arte”.

Egongelako aulki kulunkarian eseri da. Pertsianak ia-ia jaitsita, erdi ilunpean, kulunkatik kulunkara iraganeko pasarteak igaro dira Olatzen burutik. Etxean lau zirenetik, harik eta etxea hutsik geratu zen arte. Lehenengoa Mikele izan zen, lan kontuengatik. Geroago aita hil zen. Ondoren Olatz. Lan kontuengatik? Azkena ama.

“Zuk zer dakizu! Zuk zer dakizu bizitzaz!”

Olatzek bulegoan hilabeteko baimena eskatu du, amari bisita egiteko. Erabaki du Mikeleri lagundu behar diola, ezin du bien arteko haria eten. Ez da izan sen kontua, edo maitasun kontua, edo senidetasun kontua; izan da betebeharrak kontua, egin behar da, eta kito. Agian justizia kontua. Saiatuko da zorrak kitatzen. “Mikelerekin, ez amarekin. Maizago etorri beharko dut”.

Ama zahar-etxera eraman aurretik, Mikelek Olatzi lau zapabost bider deitu zion, “zer egingo dugu? Zer edo zer egin beharra dago! Lehengoan, galduta aurkitu zuten auzoko parkean, herriko etxerantz zihoala esanez. Ze herri? Ze etxe? Beste behin, kozinatzen ari zela, ia-ia erre zuen etxea. Beste behin, erosketak egiten, saltzailearen aurrean geratu zen ezer esan gabe. Ezin da bakarrik bizi. Zer egingo dugu?”

“Sei hilabetez lasaitasun osoan izan da etxea”, egin du bere artean Olatzek. “Etxe isila, inor gabe, nire kulunka hauen zain”. Ezkerreko pareta zurian amaren aldetikoa aitona eta amonaren argazki handiak, eskuinekoan aitaren aldetikoenak. Batzuetan badirudi egongela zelatatzen ari direla, besteetan badirudi elkarri begira daudela.

Lo geratu da.

Ama eta Mikele zahar-etxeko tabernan aurkitu ditu. Berretsi du atzerrira joan baino lehen bere baitan ainguratzen ari zen ustea, “gero eta antzekoagoak dira”. Ile luze, aske, liso-lisoa. Amarena urdinduagoa Mikelerena baino. Betaurrekoak, nahiko antzekoak, bien bisaian.

Lehenengo begiradan, amaren irribarrea harrigarriena iruditu zaio. Aurpegi horretan itsatsitako irribarrea arrotza egin zaio, ez dagokion tokian dagoen bisitari baten antzekoa. Mikele altxa da, eta Olatz ustekabeko emozio batek blaitu du. Besarkaturik geratu dira tarte luze batez, isilik. Gertutasunak ustekabeko sentimenduak piztu ditu.

Mikele kontatzen ari zaio nola joan diren azkeneko hilabeteak. Kontakizunean ez daude onak eta gaiztoak. Bizitzaren indarrak kateatzen ditu gertakariak, ezinbestean. Amak Olatzi begiratzen dio. Galdera ulertezinak egin ditu, irribarreari eutsiz. Olatzek ez daki zer pentsatu, eta sentimenduak ere nahasiak dira, ez daki zer sentitzen ari den.

Errudun sentimendua gailentzen ari zaio.

Olatz, zerbeza edaten ari dela, zahar-etxeko tabernan dagoen jendeari erreparatzen ari zaio, egoiliarrei eta zaintza-lanetan ari direnei. Egoiliarrak isilik daude besteen elkarrizketei begira, aho mugimenduei kasu eginez, ahoskaturiko hitzak harrapatu nahian bezala. Mikelek kontakizunarekin jarraitzen du.

Bat-batean, hitz beste eginez, zera galdetu du Mikelek: “zer egingo dugu etxearekin?”

“Ilea, orrazkera, betaurrekoak, antzekoak dira”, pentsatu du Olatzek. “Ez dut ulertu sekula Mikeleren portaera, amarekiko portaera. Ez zen jabetzen amak bizitza izorratu nahi zigula, aitari eta gu bioei? Ez zegoen ondo”.

Ettxera joan baino lehen, Gure txoko tabernan sartu da, eta Julen, Maria eta Niko harrapatu ditu bertan.

Tarte batez oso gustura ikusi du bere burua, lasai eta pozik. Luzatu da elkarriketa. Konturatu da atzerrian lagunak ez dutela ia presentziarik eduki bere buruan. Ama izan da presenteena. “Gizakiok horrelakoak gara”.

Ettxerako bidean aldakuntzen zerrenda egin du, desagertu diren dendak eta agertu direnak, desagertu diren tabernak eta agertu direnak. Eliza eta udaletxea hor daude, tinko, iraunkor. “Orokorrean, dena bere tokian dago”.

Ohean, garagardoek loari oztopoak ezarri dizkiote, pentsamenduak elkarren gainean metatu dira. Amaren irribarrea argi berezi batez agertu zaio. “Amak ez zuen besteen poza, besteen zoriontasun apurra jasaten. Poza ostu zidan. Orain zertara dator irribarrea? Nondik etorri da?”.

Ilgandeak gogoratu ditu. Aita lagunekin saski-baloiko partidetara joaten zen bi edo hiru astean behin. Pozik etortzen zen etxera, emaitza edozein zela. Lagunekin igarotako tarteak, tragoak. Ettxera sartu, eta ama hasten zen aita ekarritako poza erauzten, xurgatzen, harik eta ezerezean uzten zuen arte. Estrategiak askotarikoak ziren, emaitza bera lortzeko.

“Festa bukatu da”. Esaldi hori ere maiz entzuten zen etxean. Eta Olatz, aitaren defentsan, erantzuten saiatzen zenean, orduan bai, orduan gardentasun osoz entzuten zen “zuk zer dakizu!”. Ez zuen esaten “zuek zer dakizue”. “Hobe isilik bazaude!”. Mikele berriak isilik egoten zen, edo bere gelan ezkutaturik. Abila zen.

Amak ez zuen eztabaidarik onartzen. Horregatik, aitaren eta amaren arteko eztabaidak jasanezinak ziren, baina ez bortitzak zirelako, ez-ohikoak zirelako baizik, maitasuna egiten zuteneko aitaren eta amaren hatsanka bezain ez-ohikoak eta jasanezinak.

Gosaldu eta gero, etxeko armairuetan miatzen aritu da. Ez du ikusi aitaren arrastorik, ez arroparik ez libururik. Ez du aurkitu aita egindako lanen inguruko ezer. Aita arkitektoa zen, eta arkitekto-egilea ez bazen ere, proiektu askotan hartu zuen parte. Arrastorik ez. Amaren arropak oraindik hor daude, amaren liburuak oraindik hor daude, liburu gutxi baina lodiak, mardulak: Tolstoi, George Elliott, Perez Galdos...

Aitaren gurasoen argazkiei begiratzean, Olatzek pentsatu du horiek bakarrik salbatu direla, horiek direla aitaren aztarna bakarrak. Bitxia iruditu zaio. Horiek eta, amaren mesanotxean, familia osoko argazki txiki bat: aita, ama, Olatz eta Mikele. “Ni aitaren ondoan, Mikele amarenean, nik, aita bezala, ilea motz-motza, Mikelek eta amak ile luze liso askea”. Mikele eta Olatz gazte-gazte, oraindik hazten eta hazten, Mikele Olatz baino altuagoa zenekoa.

“Egia esateko, zer dakit nik gurasoei buruz?”

Mikele kontatzen ari zaio lana nola dihoakion azken aldian. Dena nahiko ondo. Etxe berri bat erostea pentsatzen ari da, handiagoa, daukana txikia geratzen ari baita txakurarentzat, katuarentzat eta berarentzat. Ama begiratzen ari zaio, Olatzek erauziko liokeen irribarre itsatsiarekin. Ama bisitatzera egunero joaten ari da, eta konturatzen ari da oraingo aurpegia estaltzen ari dela benetakoa, betikoa, jasan behar izan zutena. Edo jasan behar izan zuena? Olatz aitaren begikoa zen, aita Olatzena.

Olatzek jakinarazten dio bera ere ondo dagoela, gustura bere lanarekin. Apartamentu txiki batean bizi da, nahikoa berarentzat. Oraingoz ez du aldatzeko premiarik ikusten. Baina batek daki.

Aitak kontatuta, Mikelez eta Olatzez aritzean, kalean harrotasuna erakusten zuen amak ezagunen edo erdi-ezagunen aurrean. Alabaina, etxe barruan, beti gehiago nahi zuen, beti gehiago eskatzen zuen, ez zuen harrotasuna erakusten, dezepzioa baizik.

Etxean gertutasun keinuetara gutxi emana; kalean, ordea, gertutasun keinuak hor zeuden. Harrigarriak Mikele eta Olatzentzat. Baita aitarentzat ere.

Etxean oso atsegina zen loreekin, dotore zituen.

Baimendutako egonaldiaren erdia igaro zaio Olatzi, eta errutina berrietara egokitu da. Pozik dago Mikelerekin ondo moldatzen ari delako. Osagarriak dira. Mikelek asko hitz egiten du, eta Olatzi beti gustatu zaio bere inguruko bakarren bat berritsua izatea, konpentsatze aldera. Kuadrillan baditu batzuk, baina egonaldi honetan uste eta nahi baino gutxiagotan egon da adiskideekin, eta Mikelek bete du funtzio aringarri hori. Gainera, Mikele dibertigarria da. Orain deskubritzen ari da. Ordu asko elkarrekin, amaren begirada irribarretsuairen pean; noizean behin amak zer edo zer esaten du, esaldi deskonektaturen bat, eta hirurek elkarri begiratzen diote, isil-isilik.

Ohitzen ari da egoera horretara, eta Mikelek laguntzen dio ondo eramaten. Mikelerekikoa ustekabea izaten ari da. “Ea Mikele faltan botako dudana”.

Saiatu da Mikele konbentzitzen. Komeni da pertsona bat kontratatzea, amarekin egoteko, “zuk ezin duzu zama guztia zure gain hartu, gure bizitzarekin jarraitu behar dugu”. Mikele ez dago oso konbentzیتuta, baina pentsatuko duela esan dio. Mikeleri aukera horretan pentsatzeak min ematen zion, horregatik, aukera hori behin eta berriro zokoratu zuen eta zokoratzen du. Baina orain, Olatzen bulkadaz, forma hartzen ari da.

Pasa diren egunetan ez dute ezer galdetu, ez dute ezer iruzkindu bizitza pribatuari buruz, are gutxiago bizitza intimoari buruz. Baina denbora, agian horregatik, ondo joan da.

Ez dute apenas hitz egin aitaren heriotzari buruz. Olatzek beti pentsatu du amak aitari zurrupatu ziola bizitzarako gogoia edo bizipoza. Aitaren heriotzaren aurrean, desproporzioa izan zen nagusi amaren jokabidean: garrasi haiek. “Desorekatuta zegoen”, ondorioztatu du Olatzek. “Agian oraingo gaitzaren lehenengo erasoak ziren”.

Gogoratu du amaren beste galdera-esaldi bat, “noiz arte arratoi ile motz hori?” Olatzek ilea motz-motza eramana du beti.

Mikelek ez zuen inoiz ere gurasoen arteko harremanari buruz ezer esaten. Dena ondo zihoan, haren ustez.

Etiket kanpo, zer pentsatuko zuen jendeak? Bikote ideala, enpresa handi bateko arkitektoa eta enpresa berean idazkari lanetan ibilitakoa. Bikote dotorea, bizitzan zorte ona zuena. Amak hori esaten omen zuen, “zorte onekoak gu”.

Armairuetan amaren arropa geratu da, erabiliko ez duen arropa. Arropa hori kutxetan sartu eta ganbarara eramango duela erabaki du. Horrela, etxea oroimenik gabeko leku bihurtaraziko du. Etxe ia hila. Lorerik ez. Geratu dira liburuak eta amak nonahi zituen panpinak, trapuzkoak eta portzelanazkoak. Olatz konturatu da inoiz ez ziela kasurik egin, ez liburuei ez panpinei. “Arropa ganbarara eraman ondoren, agian panpinak eta liburuak eramango ditut”.

Olatzentzat eta Mikelerentzat ezezagunak izan dira aita eta ama. Badakite enpresa berean aritu zirela. Badakite lehenagotik beste lan bat izan zuela amak, prekarioa, jostun gisa. Aitak salbatu zuen (“salbatu” esaten zuen aitak, harro-harro) eta aitak lan egiten zuen enpresa berean hasi zen ama. Mikele jaio zenean, amak eutsi zion lanari. Alabaina, Olatzen jaiotzak lana uztea ekarri zuen, aitak goi mailako postua lortu zuen urte berean.

Bizitzaren lerro-buruak baino ez. Askoz gehiago ez dakite.

Olatz etxe osoa miatzen aritu da, baina pixkana interesa galdu du. Ez du ezer interesgarriarik aurkitu.

Ganbarara joan da lehenengo kutxa zamatuz. Etxebizitza bakoitzak bere ganbara dauka. Ganbarako atean etxebizitzaren solairu-zenbakia eta letra ageri dira. Bertara behin bakarrik igo zela gogoratu du Olatzek, ume zela, amarekin. Deserosotasuna gogoratzen du, ama, bera ez bezala, makur-makur eginda sartu baitzen, teilatua burutik ezin gertuago. Hautsa nonahi. Eta egun hartan izugarritzko beroa.

Ama tarteka joaten zen, baina ez du gogoan aita ganbarara joan izana: ziur aski, deserosoegia zen harentzat. Mikelek ez du inoiz ere ganbarari buruz ezer esan. “Ganbara amarena da”.

Ez da erraza izan. Argia piztu, eta zenbait kutxa ikusi ditu elkarren gainean ganbararen hondoan, meta batzuk osatuz. Kutxa batzuk kartoizkoak dira, beste batzuk plastikozkoak. Batzuek betirako itxita dirudite, hilkutxak balira bezala; beste batzuk, ordea, ez. Alabaina, dena antolatuta dagoela iruditu zaio.

Olatzek makurtu behar izan du bere burua, deserosoa da maniobratzea ganbaran zehar.

Kutxa eskuragarrienetako baten tapakia altxa du. Paperez beteta, lantokiari lotutako paperak eta paperak. Beste kutxa batean aitaren arkitektura-lanak daude bilduta. Badaude arkitektura-liburuak. Aspertzen hasi da.

Aitaren arropa agertu da kutxarik handienean. Hurrengoan ere bai. Eta hurrengoan. Argazkiz betetako kutxa bat agertu da. Argazki gehienetan aita-ama agertzen dira. Amak ile aske, luze lisoa du. Ile beltz-beltza.

Kostata iritsi da azkeneko kutxetara. Txikienak dira. Itxi-itxita daude, zinta isolatzailez, bueltak eta bueltak. Horietako bat hartu du, baina ezin izan du ireki. Labaina behar du.

Kutxa hori zamatuz, etxebizitzako egongelara itzuli da.

Zinta isolatzailea oso-oso itsatsita dago, kutxaren parte bihurtu da. Labainaren laguntzaz saiatu da kutxa txukun-txukun zabaltzen baina, pazientzia galduta, kutxa apurtu du modu basati samar batean, hainbat labainkadaz.

Kutxa ia-ia hutsik dago, hondoan argazki batzuk baino ez. Lurrean jarri ditu argazki guztiak, ilaran. Batetik bestera ibili da jauzika Olatzen begirada. Ama gaztea. Ama

ile motz-motzarekin. “Zein eder” atera zaio ahotik ia-ia ustekabeen. “Ze irribarretsu dagoen!” Zahar-etxeko ama etorri zaio burura, zahar-etxeko amaren irribarrea.

Gazte-gazte dago ama, eta ile motz-motza dauka, arrasean ia-ia. “Nire antza dauka”.

Badaude argazki gehienetan agertzen diren hiru lagun. Ez ditu ezagutzen “Argazkiak non egin zituzten?” Ama zigarro batekin agertzen da argazki batean. Kantatzen agertzen dira laurak beste argazki batean, itxura guztien arabera. Zer kantatzen, ordea? “Ez dut inoiz ere ama kantatzen entzun”. Argazki guztiak begiratu ditu berriro, baina oraingoan bere behakoa amarengana bakarrik lerratu da.

Kantari agertzen diren argazkia gorde du. Kutzaren hondarrak aulki kulunkariaren ondoan geratu dira, eta argazkiak lurretik barreiatuak.

“Badirudi etxea oroimena berreskuratzen ari dela”.

Mikele kontatzen ari zaio zahar-etxeko tabernan daudenen inguruko zenbait gorabehera. Olatzek behin baino gehiagotan arreta galdu du, eta amaren irribarreari erreparatu dio. Badirudi ama entzuten ari dela Mikeleren kontakizuna, baina batek daki. Badirudi ama irakurtzen ari dela Olatzen pentsamendua. Badirudi irribarrea intentsuagoa dela. “Irudikeriak”.

Mikelek uste du amaren gainbehera aitaren heriotzarekin hasi zela.

- Badakizu ama nolakoa zen. Beti aitarekin, beti harekin, eta haren lagunekin. Aita desagertzean, nik uste, azkeneko heldutokia joan zitzaion.

Poza margultzen zen amaren inguruan. “Aita gizagaixoa!”, hori izaten zen Olatzen pentsamendua. Mikelerena, aldiz, ez. Mikele ulerbera izan zen amarekin. Eta aitarekin. Eta Olatzekin. “Ze suerte horrelakoa izatea”, esan dio Olatzek bere buruari.

“Amaren gainbehera lehenago hasi zen. Hobeto esanda, ama horrelakoa zen. Aitaren heriotzak zegoena agerikoagoa egin zuen, akaso”, pentsatu du Olatzek. Gogoratu du ama eta bera elkarrekin, biak bakarrik, bizitzen hasi zirenean. “Garai latzak”.

Beste kutxa bat egongelan. Zamatsuago argi eta garbi. Oraingo honetan labaina ondo sartu, eta zinta zuzen-zuzen erdibitu du. Horrela, garbi-garbi altxa ditu kutxaren tapakiak. Arropa eta bestelakoak kutxaren barruan. Vintage guztia. “Ez dut sekula ikusi nire ama horrela jantzita”. Argazki bat kutxaren hondoan: mendi gailurrean ama eta beste argazkietan agertzen diren hiru adiskide. Elurra inguruan, besarkaturik ageri dira.

Ez du gogoan amaren besarkadarik. Muxuak orain agertu dira, zahar-etxean; iristean eta alde egitean Olatzek eta Mikelek muxu bana ematen diote. Amak apur bat burua jirutzen du alde batetik bestera, muxu bat eskuin matelan, beste muxu bat ezkerrekoan.

Ispilu aurrean, amaren arropa jantzita. Gustura sentitzen da arropa hori soinean.

Egonaldiko azkeneko eguna da Olatzentzat. Hegazkina arratsaldeko zortzietan dauka. Aireporturantz 6ak aldera abiatuko da.

Goizez bidaiarako gauzak prestatu ditu, eta aulki kulunkarian eseri da. Gaurkoan ere zahar-etxean bazkalduko du Olatzek; Mikelek ere bai. Bezperan kutxa guztiak itxi zituen eta ganbarara eraman zituen, zeuden tokian jarritz, inor bertaratu ez balitz bezala. Ganbarako atea itxi zuen, auskalo noiz arte. Amaren ganbara bere horretan utzi zuen. Ia-ia.

Argazki gehiago sartu ditu bidaia-maletan, banan-banan beste behin ikuskatu ondoren. Gailurrekoa da gehien gustatu zaiona. Ze poza adierazten duen amak! Eta adiskideak ez dira atzean geratzen. Amaren kutxetan ez du aurkitu ezkontzaren argazkirik, ezta ezkontza ondorengo garaikorik ere. Dena da beste garai batekoa.

Bidaia-maletan sartuko duen beste argazki batean ama agertzen da beste jostun batzuekin batera. Josteko makinak mahai gainean. Denak kamerari begira. Batzuek aurrez aurre dute kamera, beste batzuek lepoa ondo bihurritu behar izan dute. Amak ile motza darama.

Argazkiak ez ezik, amaren testuak ere sartu ditu bidaia-maletan. Amaren hitzak zeuden orri gutxi batzuetan, data eta guzti. Gogoeta laburrak, aforismo antzekoak. Bakardadean irakurri nahi ditu, ama eta Mikele urrun utzita.

Ahizparekin bazkaldu du. Egonaldiko azkeneko elkarrizketa. Olatzek ez daki zer esan. Ez daki kontatu behar dion Mikeleri amaren ganbaran aurkitutakoa. Olatzek ez daki zer pentsatu, baina ganbarak zerbait desestali du.

Mikele enkargu batzuk egitera joan da, eta horrek aukera eman dio Olatzi amarekin bakarrik egoteko, azkeneko aldiz egonaldian.

Ez dira tabernara joan, gelan geratu dira. Ama itzalita dagoen telebistarantz begira dago. Olatz amari begira, amaren irribarreari begira. Amaren ile luze, aske eta lisoari begira.

Lehenengo aldiz, ikusi du ama mendietan, algaraka, kantuan. Pozik, benetan pozik. Ikusi du ama lagunekin, elkarrekin besarkaturik. Lankideekin. Hainbat

pentsamendu eta irudi etorri zaizkio gogora, den-denak berriak. Ile motz-motza. Galdetu dio amari nortzuk diren lagun horiek.

Mikele sartu da gelan.

Han izan dira hirurak, harik eta agurtzeko ordua iritsi den arte. Mikelek etenik gabe hitz egin du. Urduri ikusi du Olatzek. Ez dio ezer kontatu amaren ganbarari buruz. Badauka zer pentsatu, zer ikertu. “Hurrengoan!”

Muxua ematera hurbildu zaio. Olatzen ezpainak amaren matelan itsatsita geratu dira tarte batean, eta amaren irribarrea areagotu dela iruditu zaio, beste behin.

Hegazkinean atzerrirantz.

Zuk zer dakizu. Hobe isilik bazaude. Noiz arte arratoi ile motz hori?

“Nola ulertu esaldi horiek?”

“Gauza asko birpentsatu behar ditut: ama zahar-etxean, Mikele, familia-etxea, ganbara, lana, itzulera...”.

“Ez dut ilea luzatzen utziko, ez, inoiz ez”.